

**HIZKUNTZA BERRI BAT IKASTEKO JABEKUNTZA URRATSAK**

## Urrats bakoitzerako jarduerak motak

## 1. urratsa

## Jarduerak-motak

## Ahozko ulermena/mintzamena

- Erantzun Fisiko Osoa (EFO) oinarritzko aginduekin.
- Irudia egokia bilatu galdera edo aginduei erantzuteko.
- Agindu-serie bat jarraitu.
- Ahoz gorako istorioak entzun, irudiak erabilia.
- Entzundako istorio batean irudiak ordenatu.
- Istorio baten pertsonaiak edo irudiak izendatu.
- Gertaerak sekuentziatu, irudietan edo gertaera ezagunetan oinarrituta.
- Ezaguna den ipuin batean akats "semantikoak" identifikatu eta zuzendu.
- Elkarrizketak osatu komiki edo istorio laburretan.
- Elkarrizketa motzak buruz ikasi eta antzestu.
- Gauzak eta irudiak sailkatu, seriatu...
- Gauzak identifikatu eta izendatu.
- Hitzak sailkatu kontzeptu edo kategori desberdinen arabera.
- Aurretik landu testuen irudietan hiztegi-giltza seinalatu.
- Gai bati buruzko gauzak marraztu eta izendatu.
- Objektu ezagunak aurkitu irudi edo argazki batean.
- Irudiak dagozkien esaldiekin elkartu.
- Ahoz deskribatutako objektuak igarri.
- Esandako zenbakiak idatzi.
- Zenbakiak esan lagun bati horrek idazteko.
- Matematikazko buruketa sinpleak ebatzi.
- Olerki, aho-korapilo, abesti ...motzak buruz ikasi.
- Eguneroko esaldi formulak buruz ikasi eta erabili.
- Testuinguru bateko formulak beste testuinguru batera transposizioa egin.
- Mapa batean puntuak aurkitu ahoz esandako aginduen bidez.
- Esandako aginduen bidez puntuak lekutu grafiko batean.

## Irakurketa/idazketa

- Landutako hitzak irakurri.
- Irudiak etiketatu.
- Norberaren izena identifikatu eta idatzi.
- Aurretik landutako testuetan hitzak, esaldiak bete.
- Norberaren esperientzian oinarrituz, testu motzak idatzi irakaslearen laguntzarekin.
- Esaldiak amaitu eta eraldatu.
- Ahoz landutako testu motzak kopia .
- Ohar errazak idatzi, kopia .



- Ahoz goran irakurri; errezeta, ataza edo proiektu txikia idazteko.
- Txartel handiak irakurri.
- Egunkariak behatu.
- Ingurune gertuko albisteak irakurri irakaslearen laguntzarekin.
- Gai ezagunei buruzko zerrendak idatzi.
- Argazki-oina errazak idatzi.
- Aurretik landu testuen transposizioa egin.
- Logotipoak interpretatu

## Testu-motak

Zerrendak.  
Agenda.  
Orduategia.  
Oharrak: abisuak, gonbidapenak.  
Irudi bidezko laguntza duten olerki errazak.  
Kantak.  
Testuinguruaren laguntza duten elkarriketa motzak.  
Mapak, planoak.  
Argazki-oina.  
Txartelak.  
Albisteak.  
Irudi bidezko laguntza duten ipuin motzak.  
Irudi bidezko duten deskribapen sinpleak.  
Irudi bidezko laguntza duten azalpenezko testu errazak.

## 2. urratsa

### Jarduera-motak

#### Ahozko ulermena/mintzamena

- Ipuin motzak kontatu irudietan oinarrituz.
- Familia-gertaerak edo norberaren esperientzietan eta errutinetan oinarritutako istorioak kontatu.
- Gai ezagunei buruzko istorioak edo gertaerak kontatu.
- Aurretik entzundako istorioak berriro kontatu.
- Gertaera, istorio edo egoera arruntetako iragarpenak egin.
- Norberaren marrazkien edukia azaldu, beraiei buruzko galderei erantzun.
- Asmakizun-jokoak deskripzioetan oinarrituta. Jokua: Zer naiz ni?
- Deskripzioak egin lagun batek emandako irudi edo txartel batean oinarrituta.
- Bi lagun artean informazio, marrazki... bat osatu. Batak eta besteak informazioa desberdina dutela eta bata bestearen informazioa ikusi gabe: "Informazio-hutsunea":
- Diferentziak bilatu irudietan.
- Role playing.
- Esaldiak errepikatu edo hitz errimadunak bete olerkietan ahoz gorako irakurketetan.
- Gaia edo kokapena adierazi.
- Hitzen elkarketak egin.
- Besteek esandakoa birformulatu.
- Esaldiak zabaldu.
- Ipuinetan, buruz ikasitako esapideak eguneroko bizitzara transposatu.



- Galderei erantzun –Nor, zer eta non galderei– esaldi motzak erabiliz.
- Ataza bat betetzeko aginduak eman lagun bati.
- Ezaguna den prozesu baten azalpena eman.
- Informazioa elkartrukatu buruketa edo ataza bati irtenbidea bilatzeko.
- Taldean eztabaidatu esaldiak edo zerrendak sortzeko.
- Buruko kalkulua egin eragiketa sinpleak erabilita.
- Estimazioak egin.
- Inguruarekin zerikusia duten albisteak entzun.
- Iragarkiak entzun eta interpretatu.

### Irakurketa/idazketa

- Hitzak edo esaldi motzak bete diktatutako testu batean.
- Elkarrizketak bete oharretan edo pistetan oinarrituta.
- Idatzitako aginduei jarraitu zerbait egiteko.
- Errezetak edo aginduen serie motzak idatzi.
- Lerroaldeak idatzi irudi-sekuentzia batean oinarrituz.
- Istorioak osatu pertsonaien, objektuen, egoeren transposizioak erabiliz...
- Albiste batean argazki-oina idatzi.
- Testuak idatzi antolatzaile grafikoa laguntza bezala erabiliz.
- Deskribapenak idatzi gida edo plantila batean oinarrituta.
- Istorio asmatuak idatzi eredu batean oinarrituta.
- Istorio kateatuak idatzi.
- Norberan esperientzietan oinarritutako istorioak idatzi: irteerak, jaiak...
- Postalak edo posta elektronikoko mezuak idatzi.
- Informazio zehatza bilatu iragarkietan.

### Testu-motak

Istorio motzak.  
Irudi bidezko laguntza duten ipuinak.  
Deskribapenak.  
Albisteak.  
Antolatzaile grafikoak.  
Komikiak.  
Postalak.  
Iragarkiak.  
Irudi bidezko laguntza duten aginduzko testuak.  
Errezetak.  
Irudi bidezko duten azalpenezko testuak.  
Olerkiak.



### 3. urratsa

#### Jarduera-motak

#### Ahozko ulermena/mintzamina

1. eta 2. mailetako jarduerak egin daitezke gero eta zailago eginez eta hiztegia zabalduz.
- Simulazio-jarduerak.
  - Grafiko eta taulen analisia.
  - Ahozko aurkezpen motzak egin.
  - Informatzeko, kontatzeko, zerbait azaltzeko edo deskribatzeko hitz egin.
  - Pelikulak edo irakurritako ipuinak kontatu.
  - Albisteak kontatu honako eskema erabilia: nor, zer non, noiz eta zergatik.
  - Prozesuak azaldu oharretan edo eskemetan oinarritua.
  - Iritzia eman gai bati buruz.
  - Norberaren ikuspuntua edo jarrera defendatu gidoi bat erabilia.
  - Landutako hiztegia erabili.
  - Definizioak egin.

#### Irakurketa/idazketa

- Bakarriketak/elkarrizketak sortu irakaslearen laguntzarekin.
- Egunerokoa idatzi norberaren esperientzietan oinarrituta .
- Argazki , objektu eta eszenen deskribapenak egin.
- Gutunak idatzi informazioa eskatzeko.
- Iragarkiak idatzi.
- Informazioa bilatu hainbat iturritan: hiztegieta, zabalkunde-liburueta, Interneten...
- Hiztegia erabili.
- Oharrak hartu zerbait ikasteko.
- Zerbaiten prozesu bat idatzi irakaslearen laguntzarekin.
- Testuen laburpena eta eskemak egin.

#### Testu-motak

Egunerokoa.  
Albisteak.  
Gutunak.  
Elkarrizketak/Bakarriketak.  
Laburpenak.  
Eskemak.  
Gelako apunteak.  
Helburu zehatza duten ahozko aurkezpenak.  
Aginduzko testuak.



## 4. urratsa

### Jarduera-motak

#### Ahozko ulermena/mintzamina

- 1., 2. eta 3. mailetako jarduerak egin daitezke gero eta zailago eginez eta hiztegia zabalduz.
- Rol-jokuak eta parodiak antzeztu.
  - Problemen ebazpena simulatu.
  - Norberaren ikuspuntua edo jarrera defendatu.
  - Bi iturri desberdinetan entzundako edo irakurritako informazioa erkatu.
  - Parodiak eta jokoak egin.
  - Ahozko txostenak egin.
  - Rol-jokoak eta bat-bateko karakterizazioak antzeztu.
  - Zerbait kontatu eta birkontatu.
  - Egunkari baten artikulua interpretatu, alde edo kontra agertuz.
  - Alegiak, ipuin herrikoiak eta elezaharrak entzun.

#### Irakurketa/idazketa jarduerak

- Norberaren, familiaren edo fikziozko pertsonai baten biografia idatzi.
- Pelikulen kritikak egin plantilla edo formatu batean oinarrituta.
- Ikerketa-lanak idatzi aurretik bildutako informazioan oinarrituta.
- Testuak idatzi konbentzitzeko, analizatzeko edo analogiak egiteko.
- Kontatu, deskribatu, analizatu edo erkatu helburua duten lanak idatzi antolatzaile grafiko bat erabiliz.
- Gutunak idatzi norberaren iritzia emateko.

### Testu-motak

Eztabaida.  
Alegiak, elezaharrak.  
Iragarkiak.  
Zuzendariari gutunak (norberaren iritzia emateko).  
Autobiografia.  
Gai bati buruzko ikerketa-txostena.  
Laburpenak.  
Bakarriketak.  
Haiku edo límerick tekniketako olerkiak...